



LEGEZKOTASUN TXOSTENA, KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUAREN ANTOLAKETARI
ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO DEKRETU PROIEKTUAREN INGURUKOA

111/2022 LT - LGAKZ
DNCG_DEC_3309/21_11

I. AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza Politikako aholkularitza juridikoak Kulturaren Euskal Kontseiluaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzko dekretu proiektuaren nahitazeko Legezkoatsun-txosten eskaera egin du Tramitagune tresna informatikoaren bidez. Dekretu proiektuaren testuaren zirriborroaz gain, txosten eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau helarazi du:

- 2021eko martxoaren 25eko Agindua, kultura eta hizkuntza politikako sailburuarena, kulturaren euskal kontseiluaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko xedapen orokor bat egiteko prozedurari hasiera ematea erabakitzen duena.
- Kultura Ondarearen Zuzendariaren justifikazio memoria, 2021eko apirilaren 12koa.
- Kultura Ondarearen Zuzendariaren memoria ekonomikoa, 2021eko apirilaren 12koa.
- 2021eko apirilaren 15eko Agindua, Kultura Eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, kulturaren euskal kontseiluaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen dekretu-proiektua aurretiaz onartzen duena.
- Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako zuzendaritzaren Txostena, 2022ko apirilaren 22koa.
- Emakunderen txostena 2021eko maiatzaren 4koa.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzaren txostena 2021eko maiatzaren 7koa.
- Saileko aholkularitza juridikoaren txostena 2021eko maiatzaren 11koa.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



- Genero eraginari buruzko Txostena 2021eko abenduaren 2koa.
- Emakunderen Txostena genero eraginari buruzkoa 2021eko abenduaren 23koa.
- Memoria gehigarria 2022ko martxoaren 30ekoa.
- Kontrol Ekonomikoaren Bulegoaren (KEB) txostena, 2022ko apirilaren 26koa.

Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.a) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.2 d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera egin da. Izan ere, artikuluan horren arabera, Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio legezketasunari buruzko txostena egitea, baldin eta interes sozialak ordezkatzeko dituzten kide anitzeko organoak sortzen badira, edo haien osieran beste administrazio publiko batzuk ordezkaturik badaude, bai eta haien antolamendu- eta funtzionamendu-arauak ere.

Aurrekoarekin lotuta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15.1.c artikulua gaitzen du txosten hau egiteko eskumena; izan ere, artikulua horrek Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari esleitzen dio legezketasunaren barne-kontrola, besteak beste, eduki arauemaileak duten eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarentzat erreserbatuta ez dauden erregelamenduetan xedapenen proiektuena.

Ohartarazi behar da, hortaz, kasu honetan ez dela nahitaezkoa Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren (EABJren) irizpena ematea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 1. artikuluan arabera. Ildo horretan, esan behar da ezen, izapidetutako dekretu-proiektuaren erregelamendu-xedapenen izaera eztabaidatzen ez bada ere, proiektuaren osagai nagusia antolamendu-arlokoa delako. Hala erabaki du EABJ-k honako prozeduran ere, arrazoi honegatik, eta ohiko moduan ez bezala legezketasunari buruzko txosten hau Kontrol ekonomikoaren Bulegoaren Txostenaren ondoren emango da.

II. OBJEKTUA

Dekretuaren Xedea da Kulturaren Euskal Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendua arautzea, eta Kontseiluaren organoak, osaera, eginkizunak eta izendapen-sistema zehaztea, horretarako gaur egun indarrean dauden erregelamenduetan jasotakoa batuz eta eraberrituz.

Abenduaren 17ko 392/1985 Dekretuaren bidez, Euskal Kulturaren Kontseilu Nagusia sortu zen eta, ondoren, apirilaren 15eko 93/1986 Dekretuaren eta abenduaren 15eko 376/1987 Dekretuaren bidez, bi aldaketa egin ziren bere funtzio-, osaera- eta funtzionamendu-araubidean. Honen ondoren, azaroaren 7ko 119/2000 Dekretuaren bidez sortutako Kulturaren Euskal Kontseiluak ordezkatu zuen hasierako kontseilu hori, eta azaroaren 21eko 232/2006 Dekretuak haren erregulazioa aldatu zuen.

Beste behin, Kultura Sailak egokitzat jo zuen batzorde horren funtzionamendua hobetzeko eguneratze eta doitze teknikoari ekitea, eta, horretarako, otsailaren 5eko 27/2008 Dekretua sustatu zuen, Kulturaren Euskal Kontseiluaren antolamendu eta funtzionamenduaren araudia aldatu eta bateratzekoa. Dekretu hori gaur egun indarrean dago, eta indargabetuta geratuko da orain proposatzen den araudia indarrean jartzen denean.

III. IZAPIDETZEA

Txostena egiten ari gataizkion arau proiektua, administrazioaren antolamenduari buruzko izaera orokorreko xedapen bat da, ordenamendu juridikoa berritzen duena alegia, eta honek dekretu forma hartzen du.

Xedapen honen kontzeptuaren eta izaeraren arabera, izapidetzari Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea aplikatu behar zaio, 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Kontuan hartuz, txosten hau egiten ari garen unean dagoeneko indarrean dela, 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. Hala eta guztiz ere, aipatutako legearen Xedapen Iragankorreen ezarritakoari jarraiki lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak lehengo araudiaren arabera izapidetuko dira amaitu

arte. Honenbestez, txosten honen helburua den dekretu-proiektuari dagokionez, abenduaren 22ko 8/2003, legea da aplikatu beharrekoa.

Izapidetza beraz lege horren arabera izan dela esan dezakegu, arestian, EABJren txostenaren inguruko gorabeherak alde batera utzita. Entzunaldiari dagokionez, saileko txosten juridikoak esandakoarekin ados egonik ere, ez txosten honek ez eta memoriak ere ez dute urriaren 1eko, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133 artikuluan ezarritako aurretiazko kontsulta publikoari buruzko aipamenik egin. Nahiz eta, kasu honetan beharrezkoa zatekeen aipatutako aurretiazko kontsulta publikoa egitea.

Proiektuaren justifikazio memorian, otsailaren 18ko, 4/2005 Legean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoan, 20 eta 21 artikuluetan ezarritako txostena derrigorrezkoa ez zela ezarri zen. Saileko txosten juridikoak aldiz, txostena egin beharrekoa zela ulertu zuen, eta emakunderen irizpenari jarraituz, genero ikuspegiaren inguruko inpaktu txostena egin zen izapide hori espedientean atxekiz. Egoki ikusten ditugu sailak txosten juridikoan eta emakundek berean emandako iritziak; eta, beraz, aipatutako legediari eta genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko, eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak eman direlako ebidentziari men eginez, ados gaude beharrezkoa zela genero eraginaren aurretiazko ebaluaziori buruzko txostena egitea.

Herri administrazioetan euskeraren erabilera normalizatzeko txostena jaso den arren, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan ezarritakoa betez, gaztelerazko eta euskarazko dekretuaren bertsioak ez dira egon hasiera hasieratik erabilgarri. Gainera nahitaezko txostenen ondorengo dekretu zirriborroa, orain aztertzen ari garena alegia, gaztelera hutsean igorri dela ohartarazi behar da. Honenbestez, esan dezakegu ez dela behar bezala bete, 8/2003 Legearen 7. artikulua zehazten duena alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar duela, euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori beteraztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena (esp. 2013/00518) (a/20130135): *"Xedapen orokorren proiektuak, 8/2003 Legearen 5. artikuluko Hasierako Aginduan zehaztutako teknikaren*

bidez bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta gero, Hasierako Agindu hori onartu duen organo berak aldez aurreko onarpena eman beharko die testuaren bi bertsio linguistikoei, 8/2003 Legearen 7. artikuluan esaten denaz bat, betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio-faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da”.

Beraz, legezkotasun-azterketara igortzen den testuak, nahitaez, elebiduna izan beharko du, legezkotasun-txostenean egiten diren ohararazpenak bi testuetan jaso ahal izateko.

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzaenak bietan egin behar dira. Bestela jokatzek, hau da, izapidetzearen baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean jasotzek (usadioak ikusita, gazteniazkoan oro har) eta, izapideketa guztia amaitutakoan, horren itzulpena egitea, lege-urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Kontuan izanda, beraz, ofizialak eta benetakoak testuaren bi bertsio linguistikoak direla, eta bi bertsioen arteko zehaztasuna eta baliokidetasun juridikoa segurtasun juridikoa bermatzeko ezinbesteko baldintzak direla, logikoena litzateke bi bertsioek jarraitu behar izatea 8/2003 Legeak aurreikusten duen prozedura osoa, hau da, kontsulta-izapidea, audientzia publikoa, txostenak... Horrela egingo balitz, prozeduraren bermeak bi bertsioek izango lituzkete, eta horrek ez soilik zehaztasun eta baliokidetasun juridikoa hobeto bermatzea, baizik eta segurtasun juridiko handiagoa ekarriko luke.

Izapidetzeari buruzko gainontzeko gaiei dagokienez sailaren txosten juridikoan ezarritakoa berresten dugu.

IV. ESKUMENA

Euskal Autonomia Erkidegoak gaiaren inguruan duen eskumen materialaren inguruan eta proiektua bera bultzatzen duen sailaren inguruko eskumen funtzionalari dagokionez, saileko

aholkularitza juridikoak emandako txostenean ezarritakoarekin bat egiten dut eta beraz, bertan esandakoa berretsi.

V. DEKRETU PROIEKTUAREN EDUKIA

Dekretu proiektuaren edukiaren inguruan kontuan izan behar da, izapidetza hasi zenetik eta beharrezko txosten eta irizpen guztiak jaso ondoren, dekretu proiektuak zenbait aldaketa izan dituela bere edukian. Aldaketa horiek, 2022ko martxoaren 29ko memoria osagarrian eta 2022ko ekainaren 16ko memoria osagarrian, KEBren txostenaren ondorengoan, daude jasota, eta oro har jasotako aldaketa guztiak legezkotasunaren ikuspuntutik aproposak direla esan dezakegu.

Kontuan izan behar da dekretu proiektu honek arautzen duena, kide anitzeko organo bat dela eta, honenbestez, urriaren 1eko 40/2015 legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa ezartzen duenak (SPAJren legea), Atariko Tituluaren bigaren kapituluaren hirugarren atalean kide anitzeko organoei buruz ezarritakoa derrigorrez bete behar duela dekretuak. Honen harira, esan dezakegu, bai, saileko aholkularitza juridikoaren legezkotasun txostenak dekretua SPAJ legearen arabera dela ondorioztatu duela. Baina honekin batera gogorarazi behar dugu, izapidetza hasi zenetik gaurdaino, 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena, onartu dela eta, beraz, kide anitzeko organoei buruz lege honek ezarritakoa ere bete beharko dela nahitaez.

Zentzu honetan Euskal Sektore Publikoaren legearen 18 artikulua honela dio:

“18. artikulua.– Kide anitzeko organoak.

1.– Oinarrizko legeriaren arabera sor daitezkeen kide anitzeko organoez gain, kide anitzeko organoak sortu ahal izango dira aholkularitza- edo partaidetza-funtzioak betetzeko, betiere instituzioarteko koordinazio- eta elkarlan-mekanismoak edo era horretako mekanismo publiko-pribatuak ez badira eraginkorrak. Kide anitzeko organo horiek proposamen-, aholku-, jarraipen- edo kontrol- funtzioak izango dituzte.

2.– *Administrazio aholku-emailea bi modutara egituratu ahal izango da: administrazio aktiboari dagokionez autonomia organiko eta funtzionala duten organo espezifikoen bidez edo administrazio aktiboak laguntza juridikoa emateko dauzkan zerbitzuen bidez.*

Halakoetan, zerbitzu horiek ezingo dute mendekotasun hierarkikorik izan, ez organikoa ez funtzionala,

kontsultagai diren xedapenak landu edo egintzak burutu dituzten organoekin, eta ezingo dute organo haietatik jaso ezein jarraibide, gidalerro edo oharpenik. Gainera, berme horiek betetze aldera, modu kolegiatuan jardungo dute.

3.– *Aholkularitza- edo partaidetza-funtzioak betetzeko kide anitzeko organo baten sortze-arauak eduki hau izango du gutxienez:*

a) Azalpena: zergatik behar den. Esleitutako funtzioak ez daudela bikoiztuta ziurtatu beharko da.

b) Zer xede eta helburu dituen.

c) Nola integratzen den Administrazioan, edo zer hierarkia-mendekotasun duen.

d) Zein den bere osaera eta zer irizpide erabiltzen den lehendakaritzako titularra eta gainerako kideak izendatzeko.

e) Zer proposamen-, aholku-, jarraipen eta kontrol-funtzio gomendatzen zaizkion, eta zer beste funtzio egozten zaizkion.

f) Hala badagokio, zer kreditu jartzen zaion funtzionatzeko.

4.– *Betiere, salbu kontrakoa justifikatzen denean kide anitzeko organoa sortzeko araua izapidetzeko espedientean, kide anitzeko organoa atxikitzen den Administrazio orokorreko sail edo sailletako edo entitateko giza baliabide eta baliabide materialen bidez egingo dira organoaren administrazio- eta kudeaketa-lanak.*

5.– *Urtero, kudeaketa-memoria idatzi beharko da, eta publikoki emango dira horren kontuak. Administrazio orokor eta instituzionalaren barruan sortutako kide anitzeko organo guztiei aplikatuko zaie arau hau, nahiz artikulua honek arautzen dituen nahiz oinarritzko legea zuzenean aplikatuta arautzen direnei. Organoak jarduerarik ez badu, ea berriro formulatu behar den ala azkendu egin behar den erabaki beharko da.*

6.– *Kide anitzeko edozein organoren osaeran Administrazio orokorreko sail batzuetako edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateetako kideak badaude, dekretu bidez eman beharko da organoak sortzeko araua. Bestela, organoa zein sailetan sortzen den, sail hartako titularraren agindu bidez sortuko da.*

7.– *Kide anitzeko organoak sortzen direnean, sorreraren publikotasun aktiboa egin beharko da. Gainera, kide anitzeko organoaren sorrerak organo horri eskumenak esleitzen badizkio beste organo batzuek erabaki beharreko kontuen gaineko nahitaezko txostenak egiteko edo beste organo batzuen jardueraren gaineko jarraipen- eta kontrol-lanak egiteko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da sortze hori.*

8.– *Aurreko arau horiek aplikatu beharko zaizkie organismo autonomoetako kide anitzeko organoei, zuzenbide pribatuko ente publikoetakoei eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetakoei."*

Gauzak honela, saileko aholkularitza juridikoaren txostenarekin oro har bat egiten dut, eta beraz txosten honetan bertan errepikatutzat ematen ditut aholkulariak bertan esandakoak. Eta 2022ko martxoaren 29an egindako aldaketak eta memoria osagarria egoki iritzita, honako ohartarazpenak egin nahi genituzke dekretuaren edukiari buruz.

- A) 4. Artikuluaren 1. Atalaren g) azpi-atalean honakoa dio dekretuak: (gaztelerazko bertsioa hartu dut, euskarazkoa ez baitago espedientean, ez bederen 2022ko martxoaren 29ren ondorengo aldaketekin eta zenbakitzea aldatu da lehen testutik orain aztertzen ari garen testura)

“ 1. El pleno del consejo Vasco de la cultura tiene la siguiente composición..

...

g) Una persona con rango mínimo de Director o directora en representación de cada uno de los siguientes departamentos del Gobierno Vasco: Promoción Económica, Turismo, Educación y Hacienda.

Dekretu proiektuaren testuarekin koherentzia mantentzeko, eta kontuan hartuz Jaurlaritzaren sailen izenak aldakorak izan litezkeela, gainontzeko artikuluetan bezala sailaren izenari erreferentzia egin beharrea, sailaren funtzioei erreferentzia egitea komenigarria litzateke. Dekretuak berak denboran iraute helburu izanda, eta esan bezala sailen izenak aldakorak direnez, ondorengo legegintzaldietan izenari erreferentzia egiteak nolabaiteko nahasmena sor lezakeelako. Ohartarazpen hau Ekonomia eta Ogasuneko txostenean egindako ohartarazpenekin bat dator.

Horrexegatik honako testua proposatzen da:

“ 1. Honela egongo da osatuta kulturaren Euskal kontseiluaren Osoko Bilkura:

...

g) Ekonomiaren garapenean, turismoan, hezkuntzan eta ogasunean eskumena duten sail bakoitzaren ordezkari bana. Ordezkari hauek, Zuzendari maila izan beharko dute gutxienez.”

- B) Arestian aipatutako Euskal Sektore Publikoaren legearen 18. artikuluen edukia ikusita, komenigarria litzateke dekretuan ezartzea, Euskal Kulturaren Kontseiluaren egitekoen artean, orain legezko betebeharrak bezala ezarri baita, urtero kontseiluak kudeaketa memoria onartu beharko duela.
- C) Aurreko ohartarazpenarekin lotuta, azken xedapenean SPAJren legeari ematen zaion izaera osogari bera eman behar litzaiotke Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 legeari.

VI. ONDORIOA

Egindako ohartarazpenak salbu, esan dezakegu aztertutako dekretu proiektuak, behar bezala betetzen dituela, SPAJren legeak eta ESPren legeak ezarritako betekizunak. Horrenbestez, adierazitako ohartarazpenak eginda, aldeko irizpena ematen diogu legezko tasun azterketara aurkeztu diguten dekretu proiektuari.

Hori da igortzen dudan txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen menpe jartzen dut.